

2017KO KUDEAKETA PLANA

HELBURU ESTRATEGIKOEI LOTUTAKO EKINTZAK

<p>H 1.1</p>	<p>1. Ebaluazio-protokoloak sinplifikatzea, eskatu beharreko informazioari zein haren tamainari dagokienez.</p> <p>2016. urtean berriak izan ez diren indarrean dauden ebaluazio-protokoloen berrikuspena, 2017. urtean plan estrategikoan eta kontratu-programan ezarritako helburua lortzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> o DOCENTIA o Doktoretza programen egiaztapenaren berrikuntza. o Ikertramoak <p>2. Izapidetze elektronikoan aurrera egitea ebaluazio-prozedura guztietan.</p> <p>Programa guztietako aplikatibo edo plataformak eguneratzea arazo edo behar berriei erantzuna emateko.</p> <p>Ebaluatzaile bankuaren aplikatiboa hobetzea.</p>
<p>H 1.2</p>	<p>3. Nazioartean finkatuta dauden eta unibertsitateen sailkapenetan gehien erabiltzen diren adierazleei buruzko azterlan bat egitea.</p> <p>Unibertsitate eta Eusko Jaurlaritzarekin batera nazioartean finkatuta dauden adierazleen zerrenda egitea, 2016. urtean egindako txostenean igarritakoak kontutan hartuz.</p> <p>4. Adierazle horien emaitzak unibertsitate-jardueraren Behatokian argitaratzea.</p> <p>Unibasq Behatokia martxan jarri eta bai adierazleak zein txostenak argitaratu.</p> <p>5. Eusko Jaurlaritzari eta unibertsitateei unibertsitate-planen inguruko aholkularitza eskaintzea.</p> <p>Indarrean dagoen Unibertsitate-planaren barnean, Unibasqek Eusko Jaurlaritzak Euskadiko hiru unibertsitateekin sinatutako kontratu-programak ebaluatuko ditu urtero.</p> <p>Eusko Jaurlaritzaren funtzio publikoari lagunduko diogu zehazteko zeintzuk diren gaur egungo euskal unibertsitate sistemaren titulu ofizial eta aurreko lizentziatura eta diplomaturen arteko baliokidetasunak, bai lan-poltsei, lehiaketa publikoei eta oposaketei dagokienez.</p>

<p>H 1.3</p>	<p>6. Gobernua eta unibertsitateak titulazioen mapari lotutako gaietan aholkatzea eta haiekin lankidetzan jardutea, diseinuari zein ezarpenari dagokionez.</p> <p>Eusko Jaurlaritzak eta unibertsitateek titulazio mapari buruzko informazio eta iritzi errekerimenduei erantzuna eman.</p>
<p>H 1.4</p>	<p>7. DOCENTIA programa gure inguruneko premietara egokitzea, baina, aldi berean, irakaskuntza-jarduera neurtzeko nazioarteko estandarrak kontuan hartzea.</p> <p>DOCENTIA protokoloa Euskadiko Unibertsitate Sistemaren beharretara eta errealitatera egokitzea.</p> <p>Unibasqen DOCENTIA batzordearen sorkuntza eta izendapena.</p> <p>DOCENTIA programaren sustapena unibertsitateetako zentro eta irakasleen artean. Horrela 2017.ean espero da gutxienez zazpi zentrok programa honetan egiaztatuta izateko betebeharrak betetzea, baita irakasleen % 20-a ebaluatua izatea ere.</p>
<p>H 1.5</p>	<p>8. AUDIT programa edo baliokidea bultzatzea, unibertsitate-erakundeen inplikazioa areagotzea eta interes-talde guztiak parte-hartzeko aukera sustatzea.</p> <p>Programa-pilotuaren analisia eta, baldin eta badagokio, Euskalitekin sortutako hitzarmenaren ondorioz egindako protokoloaren berrikuspena, unibertsitateek MGA eta AUDIT ziurtagiriak prozedura bakar batean lortzeko aukera eduki dezaten. 2017.ean prozedura horretan zentro bat gutxienez egotea.</p> <p>AUDIT programan zentroen partaidetza sustatzea. Horrela 2017.ean espero da gutxienez 15 zentroek bere ezarpena egiaztatuta izatea.</p>
<p>H 2.1</p>	<p>9. Interes-talde nagusien espektatibetara eta programen izaerara egokituko den komunikazio-protokolo bat zehaztu eta ezartzea.</p> <p>Komunikazio protokolo bat egitea.</p> <p>Unibertsitateetan bisitak egingo dira programen berri emateko, jarduera zuzenak nabarmenduz.</p>

	<p>Unibertsitate kalitateari buruzko adituen iritzien arabera eztabaidak dituzten gutxienezko bi ekitaldi burutzea (udako ikastaroak, mintegiak, jardunaldiak, etab.).</p> <p>Gutxienez prentsarekin egindako informazio jardunaldi bat burutzea.</p> <p>Unibasqeko Behatokiaren aurkezpen ofiziala.</p> <p>10. Unibertsitateko berrikuntzaren saria.</p> <p>Euskalitekin batera, Quality Innovation of the Year saria unibertsitateen artean sustatuko da, azken hauen partaidetza lortzeko, Unibasqen laguntza eta partaidetza indartuz. Berrikuntza onenari saria ematea.</p>
<p>H 2.2</p>	<p>11. Gizarte-agenteekin (enpresa- eta kultura-elkarteekin, profesionalen elkargoekin eta abar) topaketak egitea eta hitzarmenak sinatzea, Euskal Unibertsitate Sistemaren inguruko iradokizunak biltzeko eta titulazio eta erakundeen ebaluazio-paneletan haien laguntza izateko.</p> <p>Tituluen ebaluazio paneletan eta unibertsitate erakundeekin parte hartzeko aukera bermatzen duten gutxienezko bi hitzarmen burutzea agente hauekin. Bestalde, sistemari buruzko iritzia eta hobetzeko iradokizunak igorriko dituzte eta Aholku Batzordera eramango dira ebaluazio protokoloetan ezartzea onuragarria den aztertzeko.</p> <p>12. Euskalitekiko lankidetzaren areagotzea.</p> <p>Programa-pilotuaren analisia eta, baldin eta badagokio, Euskalitekin sortutako hitzarmenaren ondorioz egindako protokoloaren berrikuspena, unibertsitateek MGA eta AUDIT ziurtagiriak prozedura bakar batean lortzeko aukera eduki dezaten. 2017an prozedura horretan zentro bat gutxienez egotea.</p> <p>Euskalitekin batera, Quality Innovation of the Year saria unibertsitateen artean sustatuko da, azken hauen partaidetza lortzeko, Unibasqen laguntza eta partaidetza indartuz. Berrikuntza onenari saria ematea.</p> <p>Ebaluazio prozeduretan berrikuntza sustatzeko sarietan partaidetza baloratzea, bai lokalak baita nazioartekoak direnean ere. Adibidez, aurrean aipatutako saria.</p>

<p>H 2.3</p>	<p>13. Unibasqeko ikasleen Aholku Batzordea eratzea.</p> <p>Gutxienezko 3 bilera burutzea.</p> <p>14. Ikasleak unibertsitateen kalitatean eta ebaluazioan prestatzeko programa bat diseinatu eta aplikatzea.</p> <p>Gutxienez bi tailerrak egingo dira guztira 100 ikasle parte hartzeko.</p>
<p>H 2.4</p>	<p>15. Unibertsitateen kalitateari buruzko Estatuko bilera eta foroetan (REACU-n bereziki) aktiboki parte hartzea.</p> <p>REACU-ko bileretan aktiboki parte hartzea. REACU-n sor daitezkeen lan-taldeetan parte hartzea.</p>
<p>H 3.1</p>	<p>16. Atzerriko unibertsitate edo agentziekin baterako jardueretan parte hartzea.</p> <p>ECA-n (European Consortium for Accreditation) sortutako hurrengo lan-taldeetan partaidetza: “Baterako tituluak eta elkarrekiko aitortpena”, “Berrikuntzak egiaztapenean eta kalitatearen ziurtapenean”.</p> <p>ENQA-n egindako “Kalitatearen Ziurtapena eta errekonozimendua” lantaldean parte hartu.</p>
<p>H 3.2</p>	<p>17. Unibertsitateen kalitateari buruzko nazioarteko bilera eta foroetan aktiboki parte hartzea.</p> <p>ENQA-ren Gobernu kontseiluan parte hartu. Unibasqeko zuzendaria 2016ko urritik talde honen kidea da.</p> <p>ENQA, ECA, EQAR, INQAAHE, edo beste nazioarteko erakundeen unibertsitate kalitatearen ebaluazioari buruzko bileretan parte hartzea (gutxienez 2 bileretan):</p> <ul style="list-style-type: none"> • 2017 INQAAHE Conference “Between Collaboration & Competition: The Promises & Challenges for Quality Assurance in Higher Education” • 2017 ENQA Members’ Forum • 2017 ECA Summer workshop • 2017 ENQA General Assembly • 2017 ECA Winter workshop
<p>H 3.3</p>	<p>18. Aliatuak bilatzea, Unibasqek beste herrialde batzuetan ebaluazio-jarduerak egiten hasi ahal izan dadin.</p>

	<p>Gutxienez nazioarteko erakunde batekin egindako lankidetzaz hitzarmen bat egitea, horrela, atzerritako titulazio, irakasleria edota unibertsitate baten ebaluazioa burutuz.</p>
H 3.4	<p>19. Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateekin lankidetzan diharduten erakundeak eta tituluak egiaztatzen dituzten agentziekin harremanak ezartzea eta lankidetzaz hitzarmenak egitea.</p> <p>Lankidetzaz hitzarmenak sinatu ditugun agentziekin gutxienez bi ekitaldi burutzea, dagokien unibertsitate sistemaren akreditazio prozeduran nazioarteko ebaluatzaileak prestatzeko.</p>
H 3.5	<p>20. Nazioartean finkatuta dauden eta unibertsitateen sailkapenetan gehien erabiltzen diren adierazleei buruzko azterlan bat egitea.</p> <p>Unibertsitate eta Eusko Jaurlaritzarekin batera nazioartean finkatuta dauden adierazleen zerrenda egitea, 2016. urtean egindako txostenean igarritakoak kontuan hartuz.</p> <p>21. Adierazle horien emaitzak argitaratzea.</p> <p>Unibasq Behatokia martxan jarri eta bai adierazleak zein txostenak argitaratu. 20. ariketaren adierazleen zerrenda argitaratzea.</p>
H 4.1	<p>22. KBBSa berrikusi eta sinplifikatzea. ENQA-n sartu osteko behar berriei egokitu eta berrikusi.</p> <p>Berritutako KBBSa, MGA-ra egokitua, kanpoko azterketa bat gaindituko du kudeaketa aurreratuaren diploma lortzeko.</p>
H 4.2	<p>23. Koordinazio-bilerak aldizka egitea eta parte-hartzea eta inklusioa bilatuko duen formatu dinamiko batekin egitea.</p> <p>Bi hilero bilerak egingo dira informazioa elkarri emateko, lehentasunak zehazteko eta gorabeherak aztertzeko. Urteko kronograma egingo da, lan zamaren banaketa eramangarria antolatzeko.</p> <p>24. Barne-komunikazioko prozedura berrikusi eta hobetzea.</p> <p>2016 urtean onartutako barne-komunikazio prozedura eta harrera prozedura urtero berrikustea.</p> <p>25. Langile taldea Agentziaren errealitate berrira egokitzea.</p>

	<p>Unibasqeko erreferentziazko langile taldea burutzea.</p> <p>Lanpostuen balorazioa.</p> <p>Aurreko dokumentuak Unibasqeko Gobernu Kontseiluari aurkeztu onarpena lortzeko.</p> <p>26. Urteko prestakuntza-plan bat diseinatu eta aplikatzea.</p> <p>Langile bakoitzaren prestakuntza beharren azterketa eta prestakuntza programaren diseinua.</p> <p>Gutxienez urte bateko hiru prestakuntza-ekitaldiak egingo dira.</p>
<p>H 4.3</p>	<p>27. Programa Kontratuaren Jarraipen Batzordea eratzea, Programa Kontratuaren 7. puntuan ezarritakoaren arabera.</p> <p>Segimendu bilera burutzea 2016ko adierazleen datuak eskuratu ondoren.</p> <p>28. Webgunea eguneratzea, unibertsitate-jardueraren Behatokia barnean hartuta.</p> <p>2016-an egindako Unibasqeko web gunearen diseinu berria ezartzea, Unibasqeko unibertsitate-jardueraren Behatokia barnean hartuta</p> <p>29. Agentziaren jardueraren aurkezpen publikoak.</p> <p>Unibasqek egindako edo bertan partaidetza eduki dituen tailerren berri ematea.</p> <p>Ebaluatzaile prestakuntzako tailerretan Unibasqeko jardueren aurkezpena egitea.</p> <p>Prentsarekin ekitaldi bat antolatuko da behintzat. Behatokiaren aurkezpenari lehentasuna emango zaio.</p> <p>Unibertsitate bakoitzean bisita bat egingo da behintzat, ebaluazio eta aholku-programen nobedadeak azaltzeko, eta baita Unibasqeko ekintzei buruz informatzeko.</p>

BESTE HELBURU BATZUEI LOTUTAKO EKINTZAK

1. 2016.ko abenduan Euskaliteko kanpoko azterketa programaren ondorioz egindako gomendioei erantzuna emateko ekintza plan bat aztertzea eta burutzea.
2. Unibertsitateek eskatzen badute, atzerriko irakasle eta hemengo irakasle moten arteko baliokidetasunei buruz informatzea, unibertsitateetako Batzordeetan, Epaimahaian edo bestelako kontuetan parte hartzeko.
3. Unibasqen euskararen erabilerako protokoloaren berrikuspena eta ezartzea. Helburua da bere erabilera eta ezagutza sustatzea eta areagotzea bai barneko harremanetan, baita kanpoko harremanetan ere.
4. Berdintasun Batzordea eratzea.
5. ONCE elkartearekin elkarlanean aritzea erabilerraztasunezko elementuak neurtzeko eta ebaluatzeko erak Unibasqeko protokoloetan islatzearren.
6. Koordinazio Batzordea eratzea eta martxan jartzea.
7. Ingurugiroarekiko jasangarritasun plana egitea.